

LITERATURA UNIBERTSALA



ELSA MORANTE

Artutoren uhartea
Ume baten oroitzak

Koldo Biguri

Elsa Morante

Arturoren uhartea

Ume baten oroitzak

Koldo Biguri
Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:

L'isola di Arturo

1. argitalpena: 2024ko urrian

© Elsa Morante Estate. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Milango (Italia) The Italian Literary Agencyekin eta Ute Körner Literary Agent, Bartzelonakoarekin adostuta argitaratua. Italian, Turingo Giulio Einaudi Editorek argitaratua.

© Azaleko margolanarena: 2024, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2024, Koldo Biguri

© Hitzaurrearena: 2024, Koldo Biguri

© Argitalpen honena: 2024, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.

ISBN: 978-84-9109-872-0

LG: D 940-2024

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



ELSA MORANTE

1912-1985

HITZAURREA

Elsa Morante (Erroma, 1912-1985) XX. mendeko italiar literaturako ahots garrantzitsuenen arteko bat da, eta, bere lagun Natalia Ginzburgekin batera, aurreko gizaldiko emakumezko idazle italiarrik onena. Alabaina, Ginzburgen bost eleberri euskaratuta ditugun bitartean, *Arturoren uhartea* da orain arte euskarara itzuli den Moranteren lan bakarra. Baina Literatura Unibertsala bilduman egon beharreko autorea da ez bairik gabe, XX. mendeko idazle ezinbestekoetako bat izateaz gain, haren lanak oraindik berrargitaratuak eta irakurriak direlako, bai eta pantailaratuak ere: 2024an bertan, RAIk kalitate ezin handiagoko teleserie bat egin du Moranteren *La Storia* eleberri ospetsuarekin.

Amarekin harreman gorabeheratsua izan ondoren, Morantek hemezortzi urterekin alde egin zuen familiaren etxetik, eta unibertsitatea bertan behera utzita hasi zen latin eta italierazko klase partikularrak ematen bizimodua atera ahal izateko. Oso gazterik hasi zen idazten ere, poesiak, narrazio laburrak eta umeentzako ipuinak, 30eko hamarkadan hainbat aldizkaritan argitaratuak, haietako batzuk gizezkoen ezizenak erabiliz. Faxismoaren garaiko urte haiek zailak izan ziren Elsa gaztearentzat, bakardade-sentimenduez eta

bizimodua ateratzeko zailtasun ekonomikoez gain, zalantzasz beterik zegoelako bere itxura fisiko, gizarte-posizio eta balio artistikoaz, garai hartako literatura italiarraren ateak ez baitziren erraz irekitzen autore berri ezezagunentzat, are gutxiago emakumea izanda.

1936an, Alberto Moravia idazlea ezagutu eta harremanetan hasi zen berarekin, baina horrek bere buruarekiko zalantzak areagotu baino ez zituen egin, Moravia jada idazle ospetsua zelako –arrakasta handia lortu ondoren 1929an *Gli indifferenti* lanarekin–, aberatsa eta Elsa baino posizio altuagoko gizarte-giroan mugitzen zena. 1941ean ezkondu ziren, eta, haien arteko harremanak arazoz beterikoak izan ziren arren, Morantek aukera izan zuen senarraren eskutik gerra-osteko italiar idazle eta pentsalaririk puntakoenetako batzuk ezagutzeko, Pier Paolo Passolini, Umberto Saba edo Giorgio Bassani, besteak beste. Baina bikotearen arteko harremanak azkar hasi ziren gaizki joaten, Elsa senarra baino gutxiago sentitzen zen literaturgile bezala, ez zuen senarraren itzalpean egon nahi, berak ere egiazko idazlea izan nahi zuelako, ez «Moraviaren emaztea», eta, Italiako ohituraren kontra, inoiz ez zuen Moravia ezkon-deitura hartu.

Bigarren Mundu Gerra bitartean, 1943an, bikoteak Erromatik ihes egin behar izan zuen eta Lazio eta Campania arteko herrixka batean bilatu zuen aterpea. Biek idazten pasatzen zuten denbora; Moraviak *La ciociara* eleberri ospetsua aterako zuen esperientzia hartatik, eta Morantek, berriz, *Storia di mia nonna* izenburua zeraman lan baten idazketari ekin zion. Ge-

rra amaitu eta Erromara itzuli zirenean, Elsak Natalia Ginzburgi pasatu zion testua, *Menzogna e sortilegio* izenburuarekin, ordea, eta haren bitartez lortu zuen plazaratzea Turingo Einaudi argitaletxe ospetsuan, 1948an. Elsa Turinera joan zen liburuia zuzentzeko eta Ginzburgen eskutik harremanetan hasi zen argitaletxearen inguruan mugitzen ziren idazle eta intelektua-lekin, Cesare Pavese eta Italo Calvino, besteak beste.

Kritikak laudorioekin hartu zuen eleberria, Italian ez ezik, baita atzerrian ere, eta liburuak Viareggio Saria irabazi zuen urte hartan bertan, Italiako literatur saririk garrantzitsuenetako bat, eta, horrenbestez, hainbeste irrikatzen zuen italiar literatur munduaren atea zabaltzeko zizkion horrek. Hurrengo urtean, Moravia eta Morante banandu egin ziren –baina inoiz ez ziren dibortziatu; Italian, dibortzioa 1970ra arte ez zen onartu, gainera–, harremanetan jarraitu bazuten ere, baina ospe literario irabazi berriak egonkortasun ekonomiko apur bat ere ekarri zion Elsari, eta horrela lasaiago ekin ahal izan zion idazletzari, bere buruarekiko konfiantza handiagoz.

Menzogna e sortilegio argitaratu ondoko urteetan, zinearekiko interes berezia garatu zuen, Alberto Lattuada eta Franco Zeffirelli zuzendarien proiektu batzuetan parte hartu zuen eta RAI Irratiarekin kolaboratzen hasi zen zineari buruzko asteroko saio batean. Luchino Visconti ezagutu zuenean, maitasun-harreman sutsu bat eduki zuen berarekin, baina baita oso gatazkatsua ere, «conte rosso» deitzen zuten zinegileak –bere jatorri aristokratiko eta sinpatia komunistengatik– hainbat

maitale zituelako, bi sexuetakoak, eta beti inguruan edukitzen zituelako edertasunean Elsa gutxiago sentiarazten zuten aurkariak, ustezkoak edo egiazkoak: Ana Magnani, Maria Callas, Claudia Cardinale edo Marlene Dietrich, baina baita Alain Delon eta Helmut Berger ere. Viscontirenganako maitasuna mitifikaturik, berarekin bizi eta familia bat osatu ahal izango zuela amesten zuen, jakin arren zinegilearen maitasuna ez zela hain sendo eta baldintza gabea, eta harreman ugari zituela, bion adiskide Franco Zeffirellirekin, adibidez. Elsak baino pasio gutxiagorekin bizi zuen amodio hura Viscontik, ez zuen partekatzen Elsaren maitasun idolatratzailea, eta harremana hozten joan zen zinegilearentzat.

Moravia beragandik gertu mantendu eta haren nahigabeekin laguntzen saiatu zen arren, Elsa depresioan hondoratu eta bere balio pertsonala eta idazlebalioa ere zalantzan jartzen zituen gero eta gehiago, pentsaturik gaztetasunari eta edertasunari agur esateko garaia iristen ari zitzaioela eta, bere erruz, inoren egiazko maitasuna ezin zuela lortu. Ondorioz, 1950ean hasia zuen *L'isola di Arturo* liburuaren idazketa eten egin zuen, pare bat urtez gutxienez, eta denbora horretan gutunak eta eguneroko bat besterik ez zuen idatzi.

Arturoren uhartea Procida da, Napoliko Golkoko uharterik txikiena Capri eta Ischia ospetsuen ondoren, eta, garai hartan, liburuan agertzen den presondegia edukitzeagatik bakarrik ezaguna Italian. Procida zirkuitu turistikoei bizkarra emanda bizi zen, gerratik eta Napolik jasan zituen bonbardaketetatik aparte

ere bai, nekazari eta arrantzaleen garai arkaiko edo alegiazko batean gelditua, hotel, jatetxe eta automobilik gabe, argindarra ere iritsi berri. Gertaleku aparta, beraz, Morantek kontatu nahi duen haurtzaroko paradisuaren galerari buruzko istorio intimista bat kokatzeko. Elsak hainbat egonaldi egin zituen Procidan urte haietan eta ondoko bi hamarkadetan ere, berarentzat hautaturik bere bizi-minak bakardadean baretzen saiatzeko. Gaur egun, aldiz, gida turistiko askotan gomendatutako tokoa da, Kulturaren Hiriburua izendatua 2022an, eta ospetsua Anthony Minghellaren *The talented Mr. Ripley* eta Antonio Skármetaren liburuan oinarritutako *Il postino* filmen agertokietako bat izateagatik, bi kasuetan 1999an.

Baina, 50eko hamarkadan, Procida mundutik urrundutako leku bakartu bat zen, bai espazioan eta baita denboran ere, Morantek baliatzen duena, Arturo gazte protagonistaren bizi-linboari buruzko gogoeta liriko bat egiteko, bere nortasunaren eta bizi-inguruabarren oihartzunekin. Izan ere, *Arturo, c'est moi* esan zuen Morantek 1984an egin zioten elkarrizketa batean, eta kritikak interpretatu du Elsak Luchino Viscontirekin izandako hasierako pasioa eta geroagoko dezepzioa ikusi beharra dagoela Arturoren eta bere aita Wilhelmen arteko harremanaren ispiluan.

Bildungsroman edo heziketa-eleberrien ardatzen gainean, gogoeta psikologiko sakonez eta lirikotasun ukaezin batez kontaktzen da Arturo izeneko mutiko protagonistaren izaera nola doan mamitzen, bizitzako gauzarik handienak, ederrenak eta baita gogorrenak

ere deskubritzen dituen bitartean. Urte gutxiren epean, Arturok haurtzaroko amets eztiak amaitzen ikusiko ditu nerabezaroan, eta, laster, heldu bizitza irrikatuaren gazi-gozaok dastatzen hasiko da, txikitako oroitzapenak (*Ume baten oroitzak* azpi-izenburua darاما liburuak, izan ere) eta idealizatutako Wilhelm izeneko aita sarritan urrunarekiko eta amaordearekiko harremanak bere begiradaren galbahetik pasaturik. Edengo lorategi moduko batean ezagutuko dugu hasierako Arturo mutikoa, ia beti bakarrik, ordea, ama aldetik umezurtza delako jaiotzatik bertatik, eta denbora gehienez aitarik ere gabe, Wilhelm ez uhartean ez inon sustrairik ez duen gizona delako, denbora gehienez kanpoan egoten dena, Arturo umearen ustez toki exotikoetan abentura zoragarriak bizitzen. Geroagoko Arturo nerabea, berriz, jakintzaren sagarra hozkatuz bezala hasiko da egiazko errealitateaz jabetzen: inoiz benetako maitasunik ezagutu ez duela konturatu, bere bizitza benetan den bezala ikusi, eta txikitatik eraikitako mundu mitiko zoragarria eraisten joango zaio, harik eta, azkenik, heldutasunera iritsiz, hasierako paradisu horretatik betiko alde egin beharko duen arte.

Arturoren uhartea eleberriak Strega Saria irabazi zuen 1957an, Italiako literatur saririk handienetako bat, eta Elsa Morante izan zen sari hori irabazi zuen lehen emakumezko idazlea. Aurreko liburuak (*Menzogna e sortilegio*) baino harrera askoz hobea izan zuen, bai irakurleen eta baita kritikaren aldetik ere, eta Italiako literaturaren kanonean sartu da. Morantek

liburu honetan erabilitako idazkera goraiatu izan da bereziki, prosa dotore eta aberatsa eta idazkera txit landua dituelako ezaugarri, molde apur bat klasiko edo dezimononikoan zizelkatua, baina gai eta azterketa literario moderno bati aplikatua, pertsonaiei buruz egiten duen analisi psikologiko sakonekin.

Eleberriak zinerako egokitzapen bat eduki zuen 1962an, Damiano Damiani zuzendariak egina, eta urte hartako Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra saria irabazitakoa.

Elsa Morantek beste bi eleberri idatzi zituen ge-roago: *La Storia* (1974) eta *Aracoeli* (1982). Lehena bere libururik ospetsuena da gaur egun, plazaratu zenean –edizio ekonomikoan soilik, autorearen erabakiz, ahalik eta zabalkunderik handiena lortzeko– ehun mila aleko tiradarekin atera zen, Italiako literaturaren historian inoiz gertatu gabeko gauza, milioi bat ale saldu zituen urtebeteko epean. Natalia Ginzburgek «mende honetako eleberririk ederrena» iruditu zitzaioela esan zuen arren, eztabaida handiak piztu zituen Italiako giro intelektualean, eta ezker marxistaren kritikak jaso zituen, garaiko literatura italiar neoabanguardistatik urrundutako narrazio sentimental dickenstar herrikoi bat proposatzeagatik; baina bada esan duenik garaiko saloi literarioetatik aparte mantendu zen emakumezko idazle batek lortutako arrakasta itzelaren inbidiagatik izan zirela kritika haiek.

Elsa Moranteren literatura oso bizirik dago oraindik, eta Italian autore irakurri eta aztertua izaten jarraitzen du. Procida uharteko udalak Procida-Isola

di Arturo-Elsa Morante izeneko literatur sari bat antolatzen du urtero liburu honen egilearen omenez, Campaniako eskualdeko gobernuaren eta Italiako Errepublikako Presidentziaren sostenguaz; bertan, epaimahai teknikoaz gain, Procidako irakurleek, liburutegiek eta eskola-ikasleek hartzen dute irabazleari buruzko erabakia.

Koldo Biguri

Elsa Morante

Arturoren uhartea

Ume baten oroitzak

Eskaintza

Remo N.-ri

Lurreko puntu txiki bat iritzi zenion hura
den-dena izan zen.
Eta altxor bakan hori ezingo die inork ebatsi
zure begi jelos lokartuei.
Zure lehen amodioa ez da sekula laidotua izango.

Birjinal bildu zen gauean
ijitoa bere zapi beltzean nola,
izar esekia ipar zeruan
betiereko: gaitzak uki ezineko.

Lagun gaztetxoak, Alexandro
eta Eurialo baino ederrago,
eder betiko, nire mutikoaren lo-jagole.
ikur lazgarriak inoiz ez du zeharkatuko
uhartetxo dontsu haren atartea.

Eta zuk inoiz ez duzu ezagutuko
nik, beste askoren antzo, ikasi dudan
eta bihotza urratu didan legea:
Linbotik kanpo zorionik ez.

Oharra

Liburu honetan aipaturako herriak mapetan egiazki existitzen diren arren, jakizu orriotan ez dela inolako deskribapenik eman nahi izan, bertako gauza orotan irudimena izan baita gidari, geografiatik bertatik hasita. Hemengo kontakizun hau osorik da irudimenaren emaitza eta ez da ez leku, ez jazoera ez eta pertsona egiazkoez mintzo.

Beragan badut neure burua oroitzen, on deritzot...

UMBERTO SABAREN *Il Canzonieretik*

1

Errege eta zeruko izar

...Paradisua, garai eta nahasia...

SANDRO PENNA, *Poesie*

Errege eta zeruko izar

Izena izan zen harro egoteko nire lehen arrazoietako bat. Azkar jakin nuen –*berak* jakinarazi zidan, uste dut, inork baino lehenago– Arturo izar bat dela: Itzainaren konstelazioko argirik azkarren eta distiratsuen, zeru borealean! Eta, gainera, izen hori bera izan zuela antzinako errege batek, jarraitzaile saldo baten buru, heroiak denak, erregea bera bezala, eta erregeak berak parekotzat hartzen zituenak, anaiatzat.

Zoritzarrez, geroago jakin nuen Britainiako Artur errege ospetsu haren istorioa ez zela egiazkoa, elezahar hutsa baizik; eta, hortaz, bazterrean utzi nuen, errege historikoago batzuen alde (elezaharrak ume-kontuak iruditzen zitzaizkidan). Beste motibo bat ere banuen, haatik, Arturo izenari halako balio heraldikoa emateko: amak erabaki zuela, jakin nuen, niri izen hori ipintzea (nobleziari lotutako kutsu horren ezjakinean, nik uste). Izan ere, ama emakume-txo analfabetoa besterik ez zen, berez; baina erregina bat baino gehiago niretzat.

Egia esanda, gutxitxo jakin izan dut beti hari buruz, ia ezer ez: hemezortzi urte ere ez zituela hil baitzen, ni, haren lehen umea, jaio nintzenean.

Paperezko erretratu bat, ez dut haren beste irudirik ezagutu. Irudi marguldua, eskasa, zirriborro bat ia, baina izugarrizko adorazioa izan niona neure haurtzaro osoan.

Haren irudi bakar horren egileak, bidez bideko argazkilari koitadu batek, haurdunaldiko lehen hiletan erretratatu zuen. Haurdun dagoela argi uzten du ikusten haren gorputzak, soineko zabalaren tolesen azpian ere; esku txikiak aurre aldean gurutzatuta ditu, bere burua haien atzean ezkutatzeko bezala, halako jarrera herabe eta lotsati batez. Oso serio ageri da, eta haren begi beltzetan ez da soilik gure herriko neska eta emakume ezkonberri ia guztiengan ohikoa den mendekotasuna igartzen, baina baita halako jakin-min harritu eta apur bat beldurtua ere. Amatasunaren ohiko ilusioen artean bere patua jada susmatu balu bezala, heriotzari eta betiereko ezjakintasunari loturik.

Uharte

Ederrak dira gure artxipelagoko uharte guztiak, han, Napoliko itsasoan.

Haietako lurak jatorri bolkanikoa du, neurri handi samarrean; eta antzinako kraterren inguruetan bereziki, milaka lore sortzen dira berez, kontinentean ikusiko ez dituzunak. Udaberrian, isats landarez estaltzen dira muinoak; ekainean itsasoz bidaiatzean, haien usain basati ferekatzailea adituko duzu, gure portuetara gerturatuz gero.

Muinoetatik gora, landa aldera bidean, nire uhar-teak horma zahar arteko estrata bakartiak ditu, eta, harresi horien atzean, lorategi inperialak diruditen baratze eta mahasti zabalak. Harea argi eta biguneko zenbait hondartza ditu, bai eta kala txikiago batzuk ere, maskorrez eta harriz beteak, labar handien artean kukuturik. Itsasbazterreko ezponda piko haien artean egiten dituzte habiak kaioket eta basa usapalek, haien ahotsak goizean goiz entzuten direlarik, batez ere, noiz arranguraz noiz alai. Han, egun bareetan, itsasoa gozoa da eta freskoa, eta ihintzaren antzera pausatzen da ur ertzean. A, ez nuke eskatuko kaio edo izurde izatea, aski nuke krabarroka izatea, itsas arrainik itsusia, berriro ere han egotearren, hango uretan jolasten!

Kai ondoko kaleak eguzkirik gabeko etxarteak dira denak, eta haietan etxe umil eta mendetsuak soil eta triste agertzen dira, nahiz maskorren kolore ederrez margotuta dauden, arrosa edo errauts kolorez. Krabelin landareak ikus daitezke, noizean behin, latazko potoetan landatuta, zerrimiztoen tamainako leiho estuetako kosketan; edota kaiola txikiren bat, kilkerrentzat modukoa, baina harrapatutako usapal bat duena barruan. Etxabeak sakon eta ilunak dira, lapur-zuloen tankerakoak. Portuko kafetegian, ekonomika bat dute, zeinen gainean ugazabandreak kafea egiten baitu turkiar erara, turkesa kolorez esmaltaturiko kafe-ontzi batean. Ugazabandrea aspaldi alargundu zen eta beltzez jantzita ibiltzen da beti, soineko beltza, bizkarzapi beltza, belarritakoak ere beltzak. Paretan, senarra

zenaren argazkia dago, kutxaren ondoan, hautsez beteriko hosto-girlanda batez apainduta.

Kristo Arrantzalearen monumentua aurrez aurre duen ostatuan, jabeak hontz bat dauka, paretaren goialdean kokatutako apal-ohol bati lotuta, katetxo batez. Hegaztiak luma beltzak eta grisak ditu, finak, motots dotore bat buruan, betazal urdinak eta urregorri koloreko begi handiak, beltzez inguratuak; hegal bat odoletan izaten du beti, etengabe zauritzen baitu mokoka. Eskua luzatu eta bularrean kilima egin nahi diozunean, zure aldera makurtzen du burua, harritu itxuraz.

Iluntzen hasten denean, fla-fla-fla hasten da hegan egin nahian, eta erortzen da, baita buruz behera geratu ere batzuetan, katetik zintzilik, hegalak astintzeari utzi gabe.

Portuko elizan, uharteko elizarik zaharrenean, argizarizko santa batzuk daude, hiru arra bete ingurukoak altuan, kristalezko kanpai banatan gordeta. Egiatzko parpailez eginiko gonak dituzte, horituak, brokatuzko mantelina margulduak, egiatzko ilea, eta benetako perlaz osatutako arrosario ñimiñoak esku-muturretatik zintzilik. Haien hatz txiki heriozurbiletan, marratxo gorri fin-fin batez irudikatuta dituzte atzazalak.

Gure kaian ia inoiz ez dira porturatzen artxipela-goko beste portuetan beti ugari aurkitzen diren itsason-tzi dotoreak, kirol-ontziak izan nahiz bidaia-ontziak izan; gabarrak edo merkataritza-ontziak ikusiko dituzu, uharteko arrantzaleen txalupe gain. Portuko

plaza ia hutsik egoten da eguneko hainbat eta hainbat ordutan; ezker aldean, Kristo Arrantzalearen estatuaren ondoan, zalgurdi bakar bat egoten da lineako baporearen zain, zeinak gurean minutu gutxiz gelditu eta hiruzpalau bidaiari utziko baititu gehienez ere, uharteko jendea, normalean. Gure hondartza bakartiek ez dute inoiz ezagutzen, ezta uda partean ere, Napolitik eta hiri guztietatik eta munduko txoko guztietatik etorri eta beste lekuetako hondartzak mukururaino betetzen dituen jendetzaren zalaparta. Eta atzerritarren bat halabeharrez jaisten bada Procidan, harritu egiten da, ez duelako bertan aurkitzen Napoliko eskualdea mundu osoan ezagun bihurtu duen bizimodu alai jendetsua, kaleak festaz eta hitz-jarioz, kantuz, eta gitarra eta mandolina doinuz betetzen dituen. Procidarrak betizuak dira, hitz gutxikoak. Ateak itxita egoten dira denak, inor gutxi ikusiko duzu leihotik begira, familia bakoitza bere lau hormen artean bizi da, beste familiekin nahasi gabe. Ez gara lagunarte zaleak. Eta kanpotar baten iritsierak ez du jakin-minik pizten, mesfidantza baizik. Galdezka hasten bada, gogo txarrez erantzungo diote, nire uhartean jendeak ez baitu maite inor beren gauzetan kuxkuxean ibiltzea.

Gorpuzkera txikikoak dira, beltzaranak, begiak beltz eta luzeak dituzte, Ekialdeko jendearen antzera. Eta guztiak elkarrekin senidetuta daudela esango zenuke, hain dira eta elkarren antzekoak. Emakumeak, antzinako usadioari jarraituz, klausuran bizi dira mojak legez. Haietako askok ile luzea bihurrikatuta eramaten dute, zapia buru gainean, soineko luzea, eta, neguan,

eskalapoiak kotoizko galtzerdi beltz lodien gainean; aldiz, udan, batzuk oinutsik ibiltzen dira. Ortozik, bizkor, hotsik egin gabe eta inorekin topatzea saihestuz pasatzen direnean, basakatuak edo lepazuriak diruditelatela esango zenuke.

Hondartzara ez dira inoiz ere jaisten; emakumeentzat, bekatu da itsasoan bainatzea, baita inor bainatzen ikustea ere.

Sarritan, liburuetan, artzainaren inguruko artaldearekin alderatu ohi dira hiri feudal zaharretako etxeak, pilatuak edo sakabanatuak haranean eta mendihagaletan, goiko tontorrean nagusitzen den gaztelutik bistan, den-denak. Halaxe, Procidan ere, gaztelupean sakabanatutako artalde bat dirudite etxeek, kai ondoko etxe pilatu ugariatatik hasi eta muinoetan bakanago topatzen direnetaraino eta landa aldeko etxalde bakar-tuetaraino. Gaztelua uharteko muinorik garaienaren gainean dago (besteen aldean mendia dirudien muinoan); menderik mende erantsi zaizkion beste eraikin zenbaiten bidez zabaldurik, gotorleku erraldoi baten tamaina du orain. Procidara hurreratu gabe –batez ere gauez– igarotzen diren itsasontzietatik begiratuta, itzal erraldoi hori besterik ez da ikusten, halako moldez non gure uharteak itsasoaren erdian dagoen gotorleku bat baitirudi.

Azken berrehun urteotan, gaztelua presondegi moduan erabili izan da; nazio osoko handienetako bat, nik uste. Urrun bizi den jende askorentzat, nire uhartearen izena kartzela baten izena da.

Nire etxea gazteluari begira dago, sartaldean, itsasora ematen duen zatian; baina ehunka metro daude batetik bestera lerro zuzenean, eta bien artean hainbat kala, zeinetatik arrantzaleen txalupak irteten baitira gauez, argiak piztuta dituztela. Urruntasunagatik, ez dira leiho-zuloetako burdin barrak ikusten, ez eta kartzelazainen joan-etorria ere harresien gainean; hala, neguan bereziki, airean gandua dagoenean eta lainoak aurretik pasatzen zaizkionean, presondegiak gotorleku abandonatu bat dirudi, hiri zahar ugaritan aurkitzen diren horietako bat bezala. Fantasiatzko hondakin bat, sugeak, hontzak eta enarak beste biztanlerik ez duena.

Romeo amalfitarraren albisteak

Nire etxea mendixka malkartsu baten gain-gainean dago eraikia, laba-harri txikiz jositako lursail landugabe baten erdian. Etxaurrea herrira begira dago, eta, alde horretan, harkaitz-puskaz egindako horma zahar batek eusten dio mendiaren magalari; sugandila urdina bizi da hemen, munduan beste inon aurkitu ezin dena. Eskuin aldean, lur eta harrizko eskailera bat dago errepidera jaisteko.

Etxe atzean, zelaigune zabal bat dago, eta ondoren lurra malkartu egiten da, ezin ibiltzeko moduan. Lurjausi luze batetik, triangelu forma eta harea beltza duen hondartzatxo batera iristen da. Bidezidorrik ez dago hondartza horretara jaisteko; baina, oinutsik, erraz jaits daiteke harri artean irristan. Han, txalupa bakarra

AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea</i>	9
1. ERREGE ETA ZERUKO IZAR	21
2. NEGUKO ARRATSALDE BAT	113
3. FAMILIAKO BIZITZA	199
4. EMAKUMEEN ERREGINA	261
5. TRAGEDIAK	335
6. MUSU GALGARRIA	385
7. TERRA MURATA	439
8. AGUR	469